

BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

2464

EBAZPENA, 2026ko maiatzaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita agortu egin dela enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten langileentzako enplegu egonkorra sortzeko inbertsiora bideratutako laguntzen 2026ko ekitaldiko aurrekontu-kreditua.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariaren 2026ko apirilaren 21eko Ebazpenaren bidez, urriaren 17ko 152/2023 Dekretuaren II. kapituluko 3. ataleko 2. azpiatalean aurreikusitako laguntzen 2026. urterako deialdia argitaratu zen. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak, eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dira. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2026ko apirilaren 22ko bilera hartutako erabakiaren bidez onartu zen deialdia.

Urriaren 17ko 152/2023 Dekretuaren 50.1 artikulua, apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenak emandako idazketa berriaren arabera, espresuki ezartzen du eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko direla eta laguntzak ordenan emango direla, espedientearen osatzen den unearan arabera, aurrekontu-zuzkidura agortu arte. Halaber, artikulua berean xedatzen da aurrekontu-kreditua agortutakoan, horren berri emango dela EHAAn egingo den argitalpenaren bidez, bai eta eman gabe geratu diren eskabideak ukatu egingo direla ere.

Era berean, laguntza-deialdiaren 2. artikuluan, deialdi honi 2026rako esleitutako kredituaren zenbateko osoa jakinarazten da.

Urriaren 17ko 152/2023 Dekretuaren II. kapituluko 3. ataleko 2. azpiatalean araututako enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu egonkorra sortzeko inbertsiora bideratutako laguntzei esleitutako baliabide ekonomikoak agortu ondoren (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen), honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-zentro berezietan enplegu egonkorra sortzeko inbertsiora bideratutako laguntzak finantzatzeko 2026ko deialdiari esleitutako aurrekontu-kreditua agortu egin dela 2026ko maiatzaren 4an, hain zuzen, 2026ko maiatzaren 1ean, 01:57an, elektronikoki erregistratutako espedientearekin; administrazio-prozeduraren araudian xedatutakoaren ondorioetarako, hurrengo egun baliaduneko 00:00etan aurkeztutzat joko da. Laguntza horiek jasotzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen urriaren 17ko 152/2023 Dekretuaren II. kapituluaren 3. atalaren 2. Azpiatalak.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 21a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria,
FERNANDO PARICIO CARRIÓN.